

TOKIKOM

2010eko iraila | 96. zenbakia

aitor!

txorretako aldizkaria

Jokoz
barne

ESKOLA ERAMANGARRIAK 2





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzketan, Arrekikili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Bestorrene, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Pospolin, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Gaizka Peñafiel, IZAE Zamudioko argazki taldea, Urrusti taldea, Ines Serrano, KZ, Gorka Saratxu, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Juanxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Etxeraino

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 6.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO LAURAKURTERA
GOBIERNO VASCO

KULTURA BAILA
I. EUSKAL KULTURAREN ERKUNTZA
II. EUSKAL KULTURAREN ERKUNTZA



EUROPEAN FOOTBALL FEDERATION



diruz lagundutako aldizkaria



12 Iñaki Goirizelaia

26 Boiseko euskal Jaialdia

30 Bidegorriaren aldeko taldea

- 4 Eritxia**
- 5 Gutunak**
- 6 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Teknologia Parketik, pasieran**
- 12 Gurean izan da... Iñaki Goirizelaia**
- 14 Gaztea eta... Alaitz Argandoña**
- 16 Perretxikotan**
- 18 Futbolearen ere, euskaraz**
- 22 Berbalagun egitasmoa**
- 24 Solidaritatea, Txorierrin**
- 26 Txorierritarrak munduan... Boise**
- 30 Elkarteak/Taldeak... Bidegorriaren aldeko taldea**
- 32 Osasuna... Umeen opor osteko sindromea**
- 34 Aikorrizketan... Gu ggenheim bi**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**





GAIZKA PEÑAFIEL
(Irakaslea)

Pertsonen arteko harremanetan, eta batez ere gazteen gizarteratze-prozesuan, zerbait aldatzen ari dela argi dago. Besteak beste, gizarte-sareak dira iraultza horren errudunak. Behin baino gehiagotan entzuten ditugu bai komunikabideetan, bai inguruko solasaldietan, hamaika gizarte-sareren ize-nak, arriskuak, bertuteak... eta dagoeneko ezagunak egiten zaizkigu Facebook edo Tuenti bezalako plataformak. Hala, dudarik ez dago etorkizun hurbil batean

Tuenti delakoa

behintzat, gure bizitzan presentzia eta eragin handia izango dutela; gazteak ez ezik heldu asko ere erabiltzaile bihurtzen ari delako egunez egun. Hala ere, eragina nabarmenagoa da Informazio eta Komunikazioaren gizartean jaio direnenengan, natibo digitalengan, alegia. Txikitatik izan dituzte eskura sakelako telefono, ordenagailu, bideo-jokoen kontsola eta bestelako gailu elektronikoak, eta horren ondorioz, erraztasun aparta dute horiek manipulatzeko.

Txorierriko gazteek ere egin dute aukera; gehienek Tuenti hautatu dute. Izan ere, gaur egun, 11 urtetik gorako gazte gehienek bere profila dute sare horretan eta hori tresna nagusi bezala erabiltzen dute lagunekin komunikatzeko. Hitz egiteko ez ezik, argazkiak edo bideoak elkarren artean banatzeko, urrun dagoen lagunarekin harremanak estutzeko, ekimen desberdinekin bat egiteko, jo lasteko, urtebetetzeak gogoratzeko, liga-

tzeko... eta seguru nago iraintzeko ere erabiltzen dutela Tuenti. Erreminta guztiak bezala, ematen zaion erabileraren arabera, onuragarria edo kaltegarria izan daiteke. Zeregin horretan gurasoek berebiziko garrantzia dute, gazteen intimitatea errespetatu behar badute ere, egiten dutenaz interesatu eta oinarritzko arau batzuk ezarri eta argitu ere egin beharko lituzketelako. Erabilera desegokien aurrean debekua ez da soluzioa, Tuentiko kontua ixtea ez da konponbidea; gaztea inkomunikatuta geldituko litzateke eta zail egingo litzaioke bere lagunarteko dinamikan sartzea.

Gainera, ez pentsa komunikazioa modu digitalean baino ez dela egiten, interneteko hizpideak jarraipena du kalean. Lehen, soilik herriko lagunekin egotea zen ohikoena; baina gaur egun, Tuentiren bitartez, herri ezberdinetako neska-mutilek hamaika plan egiten dute oso gazterik hasita. Alabaina, gehienek argi dute, sare sozialak lagungarriak diren arren ez dagoela lagunekin hortik zehar ibiltzea baino ezer hoberik!

Itzulera

Dabilen harriari goroldiorik ez, eta aurtan ere beste mundu batzuk ezagutzera alde egin dugu egun batzuetarako. Baita pozik itzuli ere. Harik eta iraileko berri batzuk ezagutu arte.

Izan ere, Txorierriko institutua, ikasle kopuruaren gorakada aurreikusita, handitu beharra zegoela gauza jakina zen aspaldian, eta horretarako pausuak ematen hasiak ziren. Baina hara non hezkuntzako departamentuak bestelako lanak agindu dituela abuztuan, premiazkoak zirelakoan, eskola komunitatearekin ezer adostu gabe. Ondorioz, eta besteak beste, areto nagusia geletan




INES SERRANO
(Filosofian lizentziatua)

zaitu da, eta kanpoko patioa murriztu nahi dute. Hau da, gure seme-alabek batzeko eta kanpoan egoteko eskubidea (eta beharra) badute, baina leku fisikorik ez.

Nagusien mundura egingo dugu orain. "Eskubide guztiak guztiontzat" lelopean batzeko deialdi zabal bat egin zen irailaren 11n, herritarren indarra eta partaidetza batu gurean, eta ezin izan zen gauzatu, debekuen ondorioz. Oraingoan leku fisikoa soberan, baina eskubiderik ez, antza.

Antzinako Grezian aukeratu batzuk baino ez ziren hiritarrak, *res publica*-ren partaideak. Gaur egun izendapena ia denok izan arren, gure eskumenak urriak dira oso. Horrenbesteko oztopoa gara?



Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, AIKOR!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Toto-an, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Burokrazia eta jaiak

Udan, urtero-urtero jai ugari izaten ditugu gure haraneko auzo guztietan. Pertsona anonimoek osatutako batzordeei esker dugu jai horiez gozatzeko aukera. Pertsona horiek urteetan egin dute lan geure tradizioei eutsi eta iraunarazteko. Neu naiz horietako bat.

Egia da azken urteotan udalaz gairako erakundeek araudiak osatu dituztela, eta horren ondorioz, udalek arautu egin behar izan dituztela elkarteei eta, hortaz, jai batzordeei, ematen zaizkien diru-laguntzak. Ezin dugu ahaztu, ordea, diru-laguntzak diru publikoari esker ematen direla, hau da, zergadun guztien diruari esker. Beraz, justifikatu egin behar dugu zertan eta nola gastatzen den.

Argi dago dirua ez dela txikiea, ez dela luzatzen. Hortaz, benetan behar duenari eman behar zaio, eta ez gain-finantzazioa izan dezaketen elkarteei; alegia, diru-laguntza publikoen bidez "irabaziak" izan ditzaketenei.

Inork ez du zalantzan jartzen lagun horiek guztiek egiten duten lan eskuaz-bala. Borondatez eta umiltasunez aritzen dira, jakinda ez direla mundu honetan musutruk lanean diharduten bakarrak.

Baina, bestalde, nik dakidala behintzat, tokiko administrazioetan gaudenok ahalegin handia egiten dugu batzordeen lana errazteko, izapideak egitea errazagoa izan dadin. Eta, horretarako, justifikazio eskasa duena justifikatzen saiatzen gara maiz, ondasun eta espazio publikoak lagatzen ditugu, bitartekaritza lana egiten dugu pribatuak eskuratzeko, eta, are gehiago, batzuetan administrazioko langileak jartzen ditugu batzordeon esku. Eta hori guztia ez da imajinazioa, benetako kasuak baizik. Nik neuk bizi izan ditut.

Izan gaitezen zuzenagoak! Horixe besterik ez dizue eskatzen hesiaren bi aldeetan egon den honek. Jai zoriontsuak!

Aitor Badaia,

Derioko Udalaren Ogasun zinegotzia



Jaun eta jabe

Txorierrri taldeak Harri-zulatzaileren Euskal Herriko Liga irabazi du. Mutilek titulua berretsi dute aurten, txapela iaz ere jantzi zuten-eta. Txorierrriko harri-zulatzailerek jaun eta jabe direla erakutsi dute liga osoan zehar, izan ere egin diren bederatzi saioetatik zortzi irabazi dituzte. Horrezaz gainera, aurtengo lehiaketan errekorra lortu dute: 23 zulo, 4 cm eta 8 mm; eta gaur egun arte izandako liga guztien batez bestekorik onena ere egin dute: 21 zulo eta 8 cm.

Euskara zaporeko pintxoak

AhoZgozatu kanpainak ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzea izan du helburu. Lehiaketa irabazi duten pintxoak hauek izan dira: Bakailoa piper berdearekin, kipula karamelatuaren gainean (Txoria taberna-Derio); Gilda (Egarri-Sondika); Iberiko haizea (Errota jatetxea-Zamudio); Ahuntz gazta kipula karamelatuarekin (Oxangoiti-Lezama); Bakailoa porrusalda pil-pilarekin (Larrabetzuko batzokia); eta Hiru-gihar-kurruskaria odolostearekin (Loiuko batzokia). Botoa eman duten herritarren artean zozketa egin da. Itxaso Trabuduak (Sondika); "Kuerbo"-k (Larrabetzu); Xabier Zubietak (Derio); Ixone Zabalak (Lezama); Iker Abasolok (Loiu); eta Andoni Ugaldek (Zamudio) 30 euroko bonoa jaso dute saritzat, lehiaketan parte hartu duten tabernetan gastatzeko.


**LARRABETZU
SONDIKA
UDALAK**
ARTE EDERAK ESKULANAK E.A.
JENKIN MARTINEZ I. ANTON JENTON I.
Dizionariok, lezioak, irakurketak,
prentsa, afektuak, irakurketak,
prentsa, afektuak, irakurketak.
Militel Zendea 2. Tel. / Fax: 94 453 14 77
ARTIBO MUNDUKA (Bilbao)

ASESORIA
Luz. / Asesor. / Asesor. / Asesor.
Nafar Bidera, 1
Tel. / Fax: 94 453 14 77 - 94 453 14 77
48170 SONTOKA (Bilbao)

SANTI MAMI
Bilbao, 1
Tel. / Fax: 94 453 14 77 - 94 453 14 77
48170 SONTOKA (Bilbao)



Eskola-agenda baino gehiago

Larrabetzuko eskolako umeek agenda berria estreinatu dute ikasurte honetan. Proiektuak helburu bikoitza du: alde batetik, guraso, ikasle eta irakasleen arteko bitartekoa izatea; eta bestetik, kultura eta euskararen transmisioan sakontzea. Besteak beste, Larrabetzuko berbak, esaerak, esamoldeak, data esanguratsuak eta jaiegunak batu dira agendan. Tokiko edukiak munduko 10 umeen biografiarekin, asmakizunekin eta atsotitzekin uztartu egin dira. Agenda Dijitalidadea enpresak egin du eta proiektuan Sabin Aranak, Etxahun Lekuek, Joseba Etxebarriak, Jaione Atxutegik eta Gurasoen Elkar-teak hartu dute parte, beste batzuen artean. Eskolako umeek ez ezik edonork ere badu Larrabetzuko eskola-agenda eskuratzeko aukera. Horretarako, Gurasoen Elkartekoengana jo beharko dute. Agenda 10 eurotan salduko da.

Txorierriko gazteak, famarako bidean

Argiak, oihala... dena dago prest "Izarren distira" galarako. Horrek amaiera bikaina emango dio izen bereko talentu lehiaketari. Ekimena Mankomunitateak antolatu du, eta 12 urtetik 18 urtera bitarteko gazteek ezkutuan duten artista azalera dezatela du helburu.

Gazte askok interesa erakutsi eta antolatzaileengana jo dute, lehiaketaren ze-

hetasunak ezagutzeko. Baina oraindik despistaturen bat badago, horrek ere badu ekimenean parte hartzeko aukera. Izan ere, lehiaketan izena emateko epea urriaren 8an amaituko da, eta probak urriaren 14an eta 15ean egingo dira, Zamudiotorren eta Derioko Gurea Aretoan, hurrenez hurren.

Parte-hartzaileek bakarka zein taldeka aritzeko aukera dute, eta edozein motatako ikuskizuna aurkez dezakete: antzezlanak, kanta, dantza... Saritzat multibentura ekintzak ala ikasbidaierako dirulaguntza jasoko dute irabazleek.

Gala nagusia urriaren 30ean izango da, arratsaldeko 7etan, Sondikako kultura

etxean. Ekitaldia

Nerea Aliasek aurkeztuko du, eta

Hamaika telebistakoei hura grabatu eta telebistan emango dute.

Besteak beste, hauek osatuko dute epaimahaia: Lander Otaola *Vaya Semanita* saioko aktorea, Andrea Arrizabalaga *Teleberririko* aurkezlea, Ortzi Garitano bertsolaria eta Ylenia López *Goenkale* saioko aktorea. DJ Novok musika jarriko dio ekitaldiari.



LARRADETZU
BIZKAIKO 1. BIZKOTZAR
LARRADETZU BIZKOTZAR
(BIZKAIKO)

**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEA**

Artea auzoa, 119
Ifoneta: 94 457 13 98
ZAMUDIO

GAZTELEKU TABERNA
JARDU BARRU, 61 - 48940
TOLUSA (BIZKAIKO)

HORTZ - KLINIKA

Josune Arizmendi Garai

ORRIBERRI (BIZKAIKO) - 48940
Teléfono: 941 86708



Institutua egokitze lanekin aurrera jarraitzeko asmoa du Hezkuntzak

Txorierrri Institutuko Gurasoen elkarteko kideek bilera izan zuten irailaren 23an Hezkuntza Saileko ordezkariekin, eta heldu bezala atera ziren handik. Bileran, institutuan aspalditik dagoen leku-arazoa aztertu zuten eta besteak beste, frontoiaren lanak eta aterpea eduki zituzten hizpide.

Aurretik ere hainbat bilera egin dira Hezkuntza Sailarekin, eta horrek institutua handitzearen beharra onartu zuen hasiera batean. Hala ere, atzera egin eta "dagoena egokitzea erabaki dute azkenean", azaldu dute elkartetik. Hala, udan lau ikasgela berri atondu dira ekitaldi-aretoan, eta beste bi, zereginen ikaskuntzarako gelan eta Gurasoen Elkarateak erabiltzen zuen areto batean. Gainera, lanak ere hasi dira frontoi estalian, bertan jantokia jartzeko. "Leku horiek ikasleek erabiltzen zituzten, egun euritsuetako atsedeneratzat". Gurasoen elkarateak frontoiaren lanak, aterpe berria eraiki arte, bertan behera gelditzeko eskatu du, baina Hezkuntza Sailekoek hori urtarrilerako martxan egoteko asmoa dutela erantzun diete eta, beraz, lanek aurrera jarraituko dutela. Horren haritik aipatu behar da Derioko Udalak irailaren lanak geldiarazteko agindu zuela, "lizentziarik ez zutelako". Jakin izan dugunez, Hezkuntza Sailak lizentzia eskuratu du, baina ale hau itxi orduko lanek geldiduta jarraitu dute.

Institutuko ikasleek eskolako jantokia erabili dute gaur egun arte, eta elkartetik esan duten moduan, jantoki berriak ez dio konponbiderik emango arazoari. "Gazteek txanda bitan bazkaldu beharko dute eta ondorioz, batzuek beranduago ateratu beharko dute institututik. Horrek eskolaz kanpoko ekintzetara ere berandu ailegatzea ekarriko du".

Lehentasuna, institutu berriari

Aterpeari dagokionez, Hezkuntza Sailak aukera bi eman ditu: patioan dagoenari 223 metro karratu gehiago ematea, ala 430 metro karratuko aterpe berria egitea. Azken honetan kirola egiteko azpiegitura atonduko lukete. "Aterpearen luzatze-lanei jantokia amaitu bezain laster emango liekete hasiera, baina guk lan biak egiteko eskatuko dugu. Izan ere, talde batzuek soinketa udal kiroldegian eman behar dute gaur egun".

Beste alde batetik, Hezkuntza Sailak, Derioko handitu beharrean, Zamudion institutu berria eraikitzeari lehentasuna emango ziotela jakinarazi zuen iaz. Elkarateak ez du aztertu institutu berria altxatzeak onurarik edo kalterik ekarriko duen. Hala ere, argi dute proiektuak ez duela Derioko institutuaren arazoa konponduko. "Urte bi barru 200 ikasle berri hartzea espero dugu eta Zamudiokoa egiteko urte gehiago beharko dira".

Nekazaritza azokak

Urriaren 3an Nekazaritza Azoka egingo dute Lezaman. Azoka goizeko 11etatik eguerdiko 3rak arte egongo da zabalik eta, besteak beste, Bizkaiko txakolin, sagardo eta odolosteen dastaketa antolatuko da.

Beste alde batetik, urriaren 17an Gastronomia eta Eskulangintzako Azoka izango dute Loiu. Azoka goizeko 10etatik eguerdiko 2:30era arte zabalduko dute, eta eguerdiko 12etan txakolin eta euskal baserriko oilaskoaren dastaketa eskainiko da. Larrabetzun Bertako Produktuen Azoka egingo dute urriaren 16an. Herrian bertan ekoiztutako ortuak, frutak... salgai egongo dira goizean zehar, eta eguerdian herri-bazkaria egingo dute. Arratsaldean bertso-poteoa izango da.

Balkoi Lehiaketa

Balkoi Apainduen Lehiaketak egundoko arrakasta izan zuen eta horregatik erabaki du Zamudioko Udalak berriro antolatzeko. Lehiaketan modalitate bi egongo dira: base-riak eta pisuak. Bakoitzaren irabazleak 700 euroko bonoa jasoko du saritzat. Izena ematea urriaren 4tik 14ra bitartean egin daiteke udaltxean bertan. Urriaren 14an erakustoki bat jarriko da Leizaola lehendakariaren plazan. Han balkoiak apaintzeko loreak hartzeko aukera izango dute parte-hartzaileek, eta zehetasunak ere jasoko dituzte adituen eskutik.





Larrabetzu

Irailak 29, eguaztena

- 12:00: Meza; ostean, kopaua.
- 12:30: Mus txapelketa.
- 13:00: Trikitixa.

Irailak 30, eguena

- 12:00: Meza; ostean, kopaua.
- 12:30: Briska txapelketa.

Urriak 3, domeka

- 12:30: 12:30: Briska txapelketa.
- 13:00: Trikitixa.
- 14:30: Herri-bazkaria: paella. Ostean, bola-jokoa.

Irailean ere, jaietan

Irailearen amaieratik urriaren lehenengo egunetara bitartean San Migel jaiak ospatu-ko dira Derion, Lauroetan eta Larrabetzun. Derioztarrek hilaren 24an eman zieten hasie-ra jaiiei.

Derio

Irailak 29, eguaztena

- 17:30: Hurrei zuzendutako arratsaldea.
- 19:30: Jubilatuentzako kopaua.
- 20:00: Diskoteka.

Urriak 1, barikua. Euskararen Eguna

- 19:00: Txorizoa sagardo-puntuarekin, trikitilariak girotua.
- 21:00: Karaokea (euskaraz).
- 22:00: Txapel gaua.
- 00:00: Dantzaldia, Akerbeltz taldearen eskutik.
- 03:00: Montaitoak, Beste bat konpartsaren eskutik.
- 04:00: Diskoteka.

Urriak 2, zapatua

- 10:00: "Julio Garitano" VIII. Areto-futbol Txapelketa.
- 14:00: Indaba jana.
- 15:00: Azkenburuko sorpresa, La kuadrilla konpartsaren eskutik.
- 16:30: Zezen Lehiaketa.
- 18:00: Koktelak, Xumuskumusumus konpartsaren eskutik.
- 00:00: Dantzaldia, Geiser taldearekin.
- 04:00: Diskoteka.

Urriak 3, domeka

- 10:00: Goizeko petardo-sorta.

- 11:00: Haurrentzako jolas-parkea.
- 15:00: Jai batzordearen bazkaria.
- 18:00: Euskal dantzak, Lainomendi taldearen eskutik.
- 19:30: Sari banaketa.
- 20:00: Txokolatada.
- 20:30: Diskoteka.
- 21:30: Txupina eta jaien amaiera.



Inprimategia | Kartelagintza | Bala-kargi mugikorrak | Scanner & txosten kudeaketa | Argazkigrafi

Zamudio

Plaza 10, 48100, Zamudio, Bizkaia
Tfn 945.21.116
E. zamudio@scionoplan.es

scionoplan
argazkigrafi

BARAKALDO · BILBAO · GETXO · ZAMUDIO

902 108 763

www.scionoplan.es

Lauroeta (Loiu)

Irailak 29, eguaztena

- 10:30: Kalejira.
- 12:00: Meza.
- 13:00: Jaien hasiera eta txosnaren irekiera.
- 13:00: Briska Txapelketa eta ugaraxo-jaurtiketa.
- 18:30: Tiragoma jaurtiketa.
- 20:30: Bertsolariak: Xabi Paya, Etxahun Lekue, Arkaitz Estiballes eta Igor Elortza.
- 21:00: Erromeria.

Urriak 2, zapatua

- 09:00: Lauroetako VI. mendi ibilaldia.
- 12:30: Kopaua eta sari banaketa.
- 18:00: Umeentzako jolasak eta zinea.
- 20:00: Disko-txoua.
- 21:15: Saiheski eta txistorra jana.
- 22:30: Disko-txoua.

Urriak 3, domeka

- Umeentzako puzgarriak, gaztelua eta rokodromoa.
- Trikitilariak.
- 11:00: Kalejira.
- 12:00: Meza.
- 12:30: Artzain-txakurren XXIV. erakustaldia.
- 13:30: Magoen erakustaldia.
- 15:00: Herri-bazkaria (baserritarrez jantzita).
- 17:30: Dantzaldi ibiltaria, Aiko taldearen eskutik.
- 19:00: Idi probak.
- 21:00: Ahuntzaren zozketa.
- 22:00: Jaien amaiera eta txokolatada.



Hegazkinek teilatuetan sortutako kalteak ordainduko ditu Aenak

Derioko zenbait etxebizitzaren teilatuetan kalteak sortu dira, eta aurreko hila-beteotan ikerketa bat egin da hegazkinen hegaldiek kalte horiekin zerikusirik izan ote duten jakiteko. Aenatik jakinarazi duten bezala, etorkizunean prozedura bat ezarriko da, hegaldiek kalteetan eragina izan dutela egiaztatzen bada, teila-tuak konpontzeko. Horren haritik, aire-portuko 30 eremutik hurbil dauden eraikinak jo dituzte kaltea jaso dezakeen gunetzat. Auzokideek kaltearen berri eman beharko dute, eta teknikari batek hori hegazkinek sortu duten aztertuko du. Horrela bada, konponketa Aenak ordainduko du.

Beste alde batetik, udan intsonorizazio-lanei ekin diete Derioko institutuan eta eskolan. Lanok amaitu dituzte institutuan, eta nahiko aurreratuta daude eskolan.

Ingurumenaren jarraipen-batzordeak 1.650.778 euroko diru izendapena onartu du Aireportuaren Isolamendu Akustikoa-ren Plan barruan dauden etxebizitzak intsonorizatzeko. Era berean, oniritzia eman du hainbat eraikinetan egin diren intsonorizazio-lanak ordaintzeko. Lanok 965.279 euro balio izan dute. Dagoeneko 106 etxebizitza intsonorizatu dituzte Txo-rierrin, eta lanak beste 110 etxetan egiten dabilta.



Baserri Antzokia, bide onetik

TOTOAN Txorierriko Euskera Alkarteen Federazioak Baserri Antzokiaren barri emon euskuen urtarrelean. Proiektua haize alde dabil, eta eskualdeko eta inguruko euskaltzaleen topagune bilakatuko da laster. Egitasmoa Mankomunidadearen parte-hartzeagaz jarri dabe abian.

Egitasmoaren lehenengo fasea amaitzat jo da. Halan, bada, Fundazioa eratu dabe TOTOANek eta Mankomunidadeak, eta lurraren plano topografikoa be egin da, lurraren analisi eta guzti. Arkitektoa behin betiko proiektua dabil lantzen, eta talde eragileak kapitalizazio faseari ekin deutso. Horren haritik bazkideak egitea hartu dabe gaur egun helburu. Ekarpen ekonomikoa enpresek, partikularrek, komertzioek edo mikroenpresek egin ahal izango dabe. Horren truke abantaila ezin hobeak eukiko ditue. Kideek edo persona partikularrek, besteak beste, fundazio baten kidea izateak dakarren desgrabazioa izango dabe errenta-aitorpenen, eta beherapena egingo jake Baserri Antzokiko ekitaldietan eta eskaintzen dituan zerbitzu eta produktuetan. Era berean, lehentasuna izango dabe sarrerak eskuratzeko, eta urteroko bazkarirako tikteta be emongo jake doan. Aitaturakoez

ganera, euren negozioaren publizidadea Baserri Antzokian bertan edo haren webgunean jarriko jake komertzio lagunei.

Eregite beharrak laster hasteko asmoa dabe proiektuaren sustatzaileek.


Zabala eta euskaltzalea

Baserri Antzokia Derion kokatuko da, Seminario atzean. Eraikin jasangarria izango da, eta kirol eta kultur ekintzak antolatuko dira bertan. "Euskerea eta kultura doguz ardatz nagusi, eta antzokian euskeraz egiten diran ekitaldi guztiek eukiko dabe lekua", aitatu dabe. Horretarako guneak eraikinaren barruan zein kanpoan atonduko ditue, eta tabernea eta jatetxea be egongo dira. "Txorierriko

eta inguruko euskaltzaleen topaleku bihurtzea gura dogu. Antolatuko diran ekitaldien bitartez edo, beste barik, aisialdian pertsonen arteko topagune bezala, eskualdean giro euskaldunean gizarte-harremanak sustatzeko". Beste alde batetik, Baserri Antzokia lehen sektorearen eta teknologiaren erakuslehoia be izango da.

Proiektu zabala da, ideologia politikorik bakoa eta euskalduntasuna ardatz bakartzat dauena. Txorierriarrei eta inguruko euskaltzaleei ez eze eskualdeko enpresetako langileei be emongo deutse zerbitzua. Txorierriko eta inguruko euskaltzaleek proiektuan parte hartzeko erea dabe, diru, ideia edo laguntza ekarpenen bitartez.

"Kideek abantaila ezin hobeak eukiko ditue: beherapenak, lehentasuna sarrerak eskuratzeko, bazkarirako tikteta..."





Bidegorrian gora eta behera

Zoragarria da jaiegun batean Teknologia Parketik pasean ibiltzea. Eta are zoragarriagoa, elurra ari izan badu.

Argazkia: Jesus Pedrero, IZAE Zamudioko argazki taldea



desire
Bidegorria eta Bidegorria
Bidegorria eta Bidegorria Bidegorria Bidegorria
Bidegorria eta Bidegorria
Bidegorria eta Bidegorria
Bidegorria eta Bidegorria
Bidegorria eta Bidegorria
Bidegorria eta Bidegorria
Bidegorria eta Bidegorria



leizaldg
leizaldg
leizaldg
leizaldg
leizaldg
leizaldg
leizaldg
leizaldg
leizaldg
leizaldg



aek
Gorria Bidegorria
para entendimiento
para la comprensión
para la comprensión

**Nahi duzu?
Ahal duzu**

Txorierriko Aek
94 434 37 87
txorierriko@akur.org

t/a: Gaizka Eguskiza

**Zelan Derion, Gure Señeak elkarte-
ak antolatutako ekitaldian?**

Oso ekitaldi hunkigarria izan zen, ume gaixoen gurasoen esperientzien berri izan nuen-eta. Unibertsitatearen e-ginkizuna ikertzea da. Ea horrela arazo honi konponbidea eman ahal diogun!

**Mungiarra zara. Harreman berezi-
rik baduzu Txorierrirekin?**

Lagunak ditut. Gainera, dantzarako zaletasun itzela daukat, eta horren bidez zenbait txorierritar ezagutzen ditut. Adi-bidez, Gotzon txistularia.

**Urte bi eman duzu errektore. Pozik
orain arte?**

Pozik nago. Orain arte gauza asko egin ditugu, eta oraindik ere jarraitzen dugu lan egiten. Ikerketari dagokionez, esate baterako, plan berri bat jarriko dugu martxan urtariletik aurrera. Era berean, Unibertsitatea nazioarte mailan kokatu nahi dugu, baina horretarako internazionalizazio-plana garatu behar dugu. Horrek mugikortasuna –bai ikasleena, bai irakasleena– bultzatuko du. Graduondoko presentzia handiagoa izan behar da nazioarte mailan, eta kanpoko ikerlariak erakartzeko gauza izan behar gara.

**Non dago EHU Estatukoekin kon-
paratuta?**

Ikerketaren ekoizpena oinarritzat hartuta, 11. postuan gaude Estatuan. Ez nago gustura, baina horrek ez du esan nahi orain arte egin duguna txarto dagoenik: EHU oso unibertsitate gaztea da, eta azken urteotan gure joerak gora egin du. Adibidez, azken bost urteotan ikerketaren ekoizpena bikoiztu egin dugu, eta beste unibertsitateek zortzi urte behar izan dituzte gauza bera lortzeko. Denbora eta lana behar ditugu sailkapen horretan gorantz egiteko.

Boloniako planarekin bat egiteko prozesuan murgilduta dago unibertsitatea, eta aurrean bukatuko da epea.

“Boloniako plana ona da”

IÑAKI GOIRIZELAIA | EHUko errektorea

Lanpetuta dabil Iñaki Goirizelaia, batez ere azken bolada honetan, ikasturte berria irailean bertan martxan jarri zen-eta. Hala ere, Gure señeak elkarteak antolatutako elkarta-sun-ekitaldira etortzeko denbora atera du EHUko errektoreak, baita AIKOR! aldizkaria bere bulegoan hartzeko ere.



*“Unibertsitatea
nazioarte mailan
kokatu nahi dugu”*

*“Lizentziadunek LH
ikasi dutenek edo
ikasketarik ez dutenek
baino errazago
lortzen dute lana”*

Zelan daramazue?

Heldu behar zen momentuan heldu gara Boloniara. Duela lau urte hasi ginen Europa mailara guztiz egokitutako graduondokoak eskaintzen. Gauza berriak martxan ipintzen direnean ikusi behar dira emaitzak, eta akatsen bat egonez gero, horiek konpondu.

Askok eztabaidatu da Boloniako pla-

**naren inguruan. Onuragarria da? Zein-
tzuk dira alde onak? Eta txarrak?**

Boloniako plana ona da. Honen bidez ikasketen egitura ezagutzen da Europa osoan, graduen egiturak antzekoak direlako. Kontuan izan behar dugu Estatuan dugun ikasketa-egitura oso zaharra dela, diktadura garaikoa. Beraz, gure egitura ez dator bat Europar dagoenarekin eta alda-





Euskara gero eta nabarmenagoa da EHUn, Goirizelaiaren esanetan. “Hona sartu ginenean, irakasleen %35 zen euskalduna; eta orain, %42. Eta joera gora doa. Euskararen eboluzioa itzela da EHUn. Iaz, esate baterako, 19 liburu plazaratu genituen euskaraz. Batzuetan zaila da irakasle trebatu euskaldun bat topatzea, baina baita erdaldun bat topatzea ere. Beste alde batetik, gerta daiteke kafetegian edo idazkaritzan langile guztiak euskaldunak ez izatea. Baina lanean gaude horrelakorik ez gertatzeko. Kritika horiek nekatu egiten naute, gezurra baitira. Beste inork baino gehiago egin dugu lan euskara normalizatzeke”.

Hori ez da egia. Urtero-urtero egiten dugu ikerketa, lizentziadunen lan-egoera aztertzeko. Azken bolada honetan, langabezia igo da horien artean, egia da, baina lizentziadunek oraindik ere, Lanbide Heziketa ikasi dutenek edo ikasketarik ez dutenek baino errazago lortzen dute lana. Eta aldea nabarmena da.

JOZUELOA
 Ederribarri 10, 1
 48100 Leizor
 Tel. 94 499 00 00
info@jozue.com

LEIZOR SOROKA
 Garmateko Garmatekoia 2
 48100 Leizor
 Tel. 94 499 00 00
leizor@jozue.com

JOZUELOA/LEIZOR
 Garmateko de la Barrioia 20
 48100 Leizor
 Tel. 94 499 00 00
leizor@jozue.com

Lanari JOZUELOA/Leizor
 zabalduko ditugu zuek

JOZUELOA/LEIZOR



GURENA

ASISTENTZIA ETIA EGONITZA ZERBITZUAK

ADIN ELKOLN EGONITZA
 • ITITIBETZAPROKO ASISTENTZUAK





t/a: Bestorrene

ALAITZ ARGANDOÑA |
Zientzia Politika eta
Karramarroi artean

**Aptekas, vaistinės, vaistinėms kaimams, turintiems
nuorodą į interneto svetainę, telefoną ir el. paštą**

Antzerkia irakatsi ez ezik taula gainean antzeztu ere egiten duzu; Karramarroi pertsonaia, hain zuzen ere. Eroso zaude horren barruan?


Bai! Ane Monna, Oskola eta Karramarroi Kurkuluxetan taldekoek asmatutako pertsonaiak dira, eta ni baino lehen baze-
goen beste aktore bat Karramarroiren
papera egiten zuena. Pertsonaia aldatu ez
bada ere, nik nire ukitua eman diot.

Kostatu zitzaizun taulara igotzea?

Ez naiz oso lotsatia, baina saioa hasi aurretik eszenatokiaren atzean izaten naiz burua hutsik gelditzen zaidala. Kideek lasaitzen naute azken segundoan eta urduri ateratzen naiz, baina atzean lagunak ditudala badakidala. Guztiok ditugu mugak, baina halako gauzak egiten dituzunean, muga horiek gainditzen dituzu. Horren haritik asko ikasi dudala esango nuke. Dena dela, ikastaro gehiago egin nahi dut, eta gauza gehiago ikasi. Lagunek “farandulera” esaten didate, eta egia izan beharko da... Izan ere, mundu hau ikaragarria da. Eta ez soilik antzerki-saioei dagokienez... Pentsatzeko era zabalago bihurtzen da, jendearekiko harremanak ere zabalagoak dira... Beste ikuspuntu bat hartzen duzu.

**Agenda 21 foroaren ardura izan du-
zu Derion. Hori ere esperientzia ona izan
da?**

Bai, Nik Zientzia Politikak ikasi ditut, baina gehien gustatzen zaidana herriko mugimenduei buruzko lanak egitea da. Foroak aukera handiak ematen dizkizu jendearekin harremanetan egoteko. Nik gaiteriatzen inquiruko foroak eraman dut eta



Larrabarri Derioko baserriko ganbararai-
no hurbiltzen bagara, bertan topatuko
dugu Alaitz. Berak esaten duen bezala,
"han hainbat ordu sartzen ditut eta".
Alaitz Argandoña Oteiza Arangoiti auzo-
koa da. Zientzia Politika ikasketak amai-
tu eta Tokiko Agenda 21 egitasmoan
hasi zen lanean Derion. Jarraian, *Beitu*
hilabetekarian sartu zen laguntzaile.
Berbalagun Txorierriko proiektuan ere
hartu zuen parte, eta han zegoela Tximintx euskara elkarteak antolatutako

"Halako gauzak egiten direnean, norberaren mugak gainditzen dira"

pozik irten naiz handik. Lana batez ere informazioa jasotzean datza, eta uste dut aukera paregabea dela, instituzioa parez pare duzulako eta horri zuzenean galdetu ahal diozulako.

Antzerkia eta foroa gutxi balira, kazetaritza munduan ere eman dituzu lehen urratsak...

Beitu Derioko aldizkarian nabil lanean. Bertan neu naiz bakarra kazetaria ez dena, baina uste dut ondo konpontzen naizela eta nire ikuspuntua ezberdina dela. Gainera, lotsarik ez dudanez, ba arazorik ez: ulertzen ez dudana behin eta berriro galdetzen dut.

Neska polifazetikoa

antzerki tailer batean eman zuen izena. "Eta antzerki mundura egin nuen salto" Kukuke Derioko antzerki eskolako taldeak ditu bere ardurapean, eta Bilboko ikastetxeetan ere irakasten du antzerkia. Hango umetxo gehienek Karramarroi bezala ezagutzen dute, izan ere gaur egun pertsonaia horrena egiten du Kurkuluxetan Bilboko antzerki taldean.


MODA
INFANTIL
Trimeleta

Desenhos de Estéfany B.
R. 4, Lote 10 - 13.040-100 - F.
Fone: (081) 412.11.76. **Atendimento**

 **volconsa**
Sociedade por Acciones
C/da. de la Industria, 100, 1.º, 28014 Madrid

Desde el primer momento, el primer
suplemento, siempre presente

En la actualidad, el primer
suplemento, siempre presente

En la actualidad, el primer
suplemento, siempre presente

GAMINIZ
JATETXEA



Telefono: 944 21 77 00
correo: gaminiz@jgundak.com

Bandada 212, Paseo Internacional
489 70, Leizorribi, Leizor
48920 Leizorribi, Bizkaia

www.gaminiz.com



ZAMBONI MOTOR

84.400.1010
84.400.1014

Aut. Tribunale
P.A. 6. Roma 2
00750000000
000000



BIBLIOTHEQUE
 JARDIN
 CHURCH

L'ÉGLISE ET LE JARDIN
 L'ÉGLISE ET LE JARDIN

t: Itxaso Marina / a: U.T.

Mendian ez dago sekretu handirik. Intuizinoa, eskarmentua eta ikusmen ona oso mesedegarriak dira, perretxikotan ibiltzeko. Baina helburua ez da ahalik eta onddo gehien hartzea, naturan tarte atsegin bat pasatea baino. Urrusti alkar-tean ondo ikasita daukie hori, eta inguru-menaren aurrean begirunez jokatzeko irakasten deuse alkartekideei mendi urte-kera guztietan. "Mendia topau dogun moduan itxi behar dogulako".

Perretxiko muetak asko dira eta garau gehiago edo gitxiago topauko doguz tokien arabera. Mendian gora eta behera ibili ostean, atsegina da otzarea beteta eroatea etxera, eta familiagaz batera gozatzea perretxikoez. Baina mendia garbitzen dauenik be badago eta lurralde batzuek araudiak eta kuota-sistemak ezarri ditue. Esaterako, Arabak. Urrustikoak ez datoz bat halako neurriakaz. "Alde

Esku artean doguz udagoieneko lorak

Azken hilabeteotan ez dau euri askorik egin, eta lurra siku dago. Baina guk ez dogu galdu ilusiorik ez gogorik. Otzarea eta labanatzua harturik, Mikel Llodio, Jose Luis Medrano eta Patxi Arias Lezamako Urrusti mikologia alkarteko kideakaz ibili gara perretxikotan.

*"Urritik abendura
bitartean urteera
sorta zabala antolatu
dabe Lezaman"*

batetik, ikerketen arabera, biltzeak ez daukalako ondorio txarrik perretxikoen ugalketan. Eta, bestetik, neurriok ondorio txarragoak ekarri lekiezala. Hau da, egunean kilo bitik gora ezin bada hartu, jazo leite onddotan dabilenak erabagitea garau txikiak hartuko dituala, eta orduan onddo horreek, heldu barik badagoz, ez dabe esporarik botako, eta mendiari kalte handiagoa egingo jako". Urrustikoen ustez, beste era bateko neurriak hartu



ZAMUINAKO ESTANKOA
Taloakak, dituen eta ezarritak

MAIOLAKO, MAIOLAKO
Taloakak eta ezarritak

OBRAS Y REFORMAS
CONSEJO REGULADOR DE OBRAS Y REFORMAS

Gorritxoa

Proyecto de Intervención
Urbanización de OBRAS Y REFORMAS

Intervención de urbanización, Planes
de urbanización
de urbanización y urbanización
de urbanización

Garmendia
ardoak

Wine, 19.20
Garmendia 19.20
Tel: 945.45.45.45

beharko litzatekez: lizentzia-sistemak ipintea, arautu bako salmentea kontrolatea edo biltzaileek oinarrizko ezagutzea dabela ziurtatzea, banaka batzuk baino ez aitatzearen. Ezagutzea armarik baliagarriena dalako. "Badago perretxikoak inongo erizpide barik jasoten dituanik; eta ez ezagutzearen ondorioz hartutakoen erdiak baino gehiago botaten dituanik: perretxikoak onak izan zein txarrak izan".

Guztien zeregina

Lezamarrek azaldu daben legez, perretxiko guztiek, jangarriek nahiz hilgarriek, euren zeregina dabe mendian, eta susmorik bada garauren bat pozoitsua izango ete dan, ez da onuragarria ha kentzea, ez naturarentzat, ez gure atzetik datozenentzat. "Animaliek ez dabe jango, eta zikotza ez danak beste hainbeste izango dau hartzeko". Ez dakigunean, galdetzea da onena. Urrustikoak taldeka banatzen dira mendi urteeretan, eta aditu bat edo bi joaten dira talde bakoitzean. "Zalantzarik badago, ez da hartzen".



Perretxikotan dabilzanak ekipamendu egokia eroan behar dau mendira: labana eta otzarea. Eta azken hori konpartimentutan zatituta badago, askoz hobeto. Holan perretxiko mueta desbardinak batu eta sailkatzeko aukerea egongo da. Plastikozko boltsea ez da bape komenigarria esku artean dogun beharrerako. "Eragozten dalako perretxikoen esporak mendira botatea. Horrezaz gainera, boltsea hermetikoa danez, garauak usteldu egiten dira".

Ekintza ugari

Eguraldiaren menpean gagoz, eta ez dakigu perretxiko sasoia oparoa izango ete dan. Baina Urrustikoek ekintza sorta

zabala antolatu dabe urritik abendura bitartean. Urriaren 2an, Gorbeira joango dira eta egun horretan bildutako garauak ikusgai ipiniko ditue hurrengo egunean Lezamako Nekazaritzako Azokan. Untza Derioko mendi taldeak hilaren 30erako antolatutako urteeran be parte hartuko dabe, eta azaroaren 14an Markina-Sarriara (Murgia) joango dira. Azaroaren 28rako, Páramo de Masara antolatu dabe urteerea, eta Gabonetan Argazki Txapelketea egingo dabe laugarren aldiz.

Urrusti Lezamako taldea Txorierrin dagoan mikologia alkarte bakarra da. Alkartera hamalau lagunek sortu eben orain dala bost urte, eta gaur egun 50 bazkide ditu. Urrustik hartu-emon estua dauka eskualdeko mendi alkarteakaz, eta gura daben guztiek hartu leikie parte euren jardueretan. Gainera, aurton kamisetak jarri ditue salgai, urteeretara dotorre-dotorre joateko.

Informazio gehiago:
www.urrusti.vpweb.es
urrustimic@gmail.com



Derio

URRIA - EGITARRAUA



COMO PERROS Y GATOS 2
La resaca de Billy y Belva
Larazola 2: 18:00h
España 3 - 12:00h



SALT
Larazola 4: 18:00h
España 3 - 12:00h



ANTIFERIA: "FERRARAZTAMU"
Larazola 4: 18:00h
Murgia 20 - 12:00h



EL APINIMIL DE INDIU
Larazola 4: 18:00h eta 20:00h
España 20 - 12:00h eta 12:00h



CAMPANA Y EL GRAN REFUGIO
Larazola 4: 18:00h
España 10 - 12:00h



KILIFOX
Larazola 4: 18:00h
España 10 - 12:00h



ANTIFERIA "VIAJERAS AL TIEN"
Larazola 4: 18:00h
Murgia 20 - 12:00h



AMEL Y EL MISTERIO DE LA MOMIA
Larazola 4: 18:00h
España 10 - 12:00h



L'ARRÉN MISTRA-KASTINA
Larazola 4: 18:00h
España 10 - 12:00h



THE KARATE KID
Larazola 4: 18:00h
España 10 - 12:00h



EL AMERICANO
Larazola 4: 18:00h
España 10 - 12:00h

GUREA ARETOA

Informazio gehiago: www.derio-egitarrak.net






Futboleak ere, euskaraz

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioak eta ITZARRI aholkularitza enpresak futbol entrenatzaileen eskola euskaraz jarri dute abian, Txorierri. Horretarako, Mankomunitatearen eta Foru Aldundiaren diru-laguntzak jaso dituzte, baita eskualdeko futbol klubak oniritzia ere.

t: Gaizka Eguskiza

Futbola izugarritzko indarra duen kirola da. Milaka eta milaka lagunek ikusi zuten lehengo udan Hegoafrikan jokatu-tako Munduko Txapelketa, eta urtean zehar normalean gehien ikusten diren telebista saioak futbol partidak dira. Gainera, hainbat hedabidek futboleak gertatzen diren gorabehera guztiak ematen dizkigute behin eta berriro. Bere eragina nabarmena da, eta edozein zeharkako helburu sustatzeko ere lagungarria da. Esate baterako, euskararen erabilera bultzatzeko. Horren haritik, TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioak eta ITZARRI aholkularitza enpresak futbol entrenatzaileen euskarazko eskola jarri dute martxan gure bailaran.

“ITZARRIK saio teorikoak eta praktikoak egin ditu; TOTOANek irakasleek erabiliko duten materiala landu du”

“Gazteek azterketekin-eta identifikatzen dute euskara, baina ez dute atseden edo gozamenenarekin lotzen. Hori aztertuta, pentsatu genuen futbola kirol arrakastatsua zela eta, beraz, hor sustatu behar zela hizkuntza: ezagutzatik erabilera pasatzea nahi dugu”, dio Xabier Goienetxe TOTOANeko presidenteak. Koikili

Lertxundi Athleticeko jokalaria eta ITZARRI enpresaren kideak ere uste du hizkuntza gizartearen esparru guztietara zabaldu behar dela. “Euskara gutxi erabiltzen da kirolean, eta zaila da eredu erdalduna aldatzea”.

ITZARRI eta TOTOAN dira proiektuaren sustatzaile nagusiak. Alde batetik, ITZARRIK saio teorikoak eta praktikoak egin ditu; bestetik, TOTOANek eskolako irakasleek erabiliko duten materiala landu du. “Futbolari buruz euskaraz idatzitako oso material gutxi dago eta guk liburu bat argitaratu dugu. Bertan teoria jorratu dugu. Era berean, laster beste liburu bat eramango dugu plazara Kirolplanning enpresaren laguntzarekin. Bigarren ale horretan saio praktikoak hartuko ditugu hizpide”, aipatu du Goienetxe.

Futbol entrenatzaileen eskolak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Txorierriko Mankomunitatearen babes du. "Guk ere bagenuen eskola egiteko ideia, baina ez genekien egitasmoa zelan bideratu. Orduan ITZARRI eta TOTOAN agertu ziren eta azkenean proiektuari ekin genion", esan digu Gorka Carro Mankomunitateko presidentea. Egitasmoa aitzindaria da Euskal Herri mailan, eta non eta Txorierrin gauzatu da. "Proiektuak agerian utzi du Txorierrin euskara bultzatzeko grina dugula. Euskara normalizatzea nahi dugu eta horretarako gizartearen esparru guztietara zabaldu behar da. Adibidez, Txorierrin gidabaimena euskaraz lortzeko aukera dago. Eta orain futbolera hedatu nahi dugu gure hizkuntza".

Txorierrin, "egoera ezin hobea"

Horrekin bat dator Koikili. "ITZARRItik egoera ezin hobea ikusi genuen Txorierrin proiektua aurrera eramateko, eta horretarako aparteko bidaia-lagun batekin egin genuen topo, TOTOANekin, alegia. Gainera, erakunde publikoak eta kirol elkarteak laguntzeko prest agertu dira beti". Halaber, "Txorierrin proiektu guztietara nahiko zabalik gaude, beste leku batzuetan baino jarrera baikorragoa dugu", Goienetxeren esanetan. "Proiektua oso eraginkorra izan daiteke gazteek euskara erabil dezaten".

Proiektua zenbait fasetan garatu da: iaz bilera pilo bat egin ziren lankideen irizpideak adosteko; maiatzean eta ekai-

nean eskola teorikoak eman ziren Bilbon; irailean eta urrian eskola praktikoak ematen dabilta Sondikako futbol zelaian; aurrerago, ikasleek eurek egingo dituzte entrenamenduak euskaraz. "Gaur egun, umeak euskaldunak dira. Proiektua ume txikienei dago zuzenduta oinarritik, hasiera-hasieratik umeengan euskaraz egiteko ohitura sustatuko baitugu. Horrela jarraituz gero, denboraren poderioz talde nagusiek ere euskaraz egingo dute bai

Gorka Carro, Mankomunitateko presidentea



"Txorierrin euskara normalizatzea nahi dugu. Eta horretarako gizartearen esparru guztietara zabaldu behar da"

entrenamenduetan, bai partidetan", uste du Carrok.

Azken batean, Koikiliren ustez, "funtsezkoa da ohitura sortzea, eta horregatik bidea luzea izango da". "Kirolariek normalean gazteleraz egiten dute. Hori dela eta, txikien taldeetan –eta ez nagusiengana– jarri dugu martxan egitasmoa. Izan ere, maila horietan aldaketa errazagoa da. Horrek esan nahi du, irakaskuntzan bezala, umetxoak hasiko liratekeela proiektu berri honekin. Orduan futbola euskaraz lehendabizi ezagutuko luke klubetan, eta horrek ohitura sortuko luke denbora pasa ahala. Hamabi urte barru denak euskaldun izatea izango zen helburua", dio Goienetxek.

Baina xede hori bete dadin, umeek jarrera ona adierazi behar dute. Eskolako sustatzaileen arabera, izugarrizko atxikimendua eman diote txikienei proiektuari. Eta horiek guztiak ez ezik, entrenatzaileak ere agertu dira zalantza barik proiektuaren alde. "Entrenatzaileak edo hezitzaileak dira ekimen horren zutabe ga-

12 z gurekien munduko herriak onenak Bilbotik hain hurbil saltzen dituztenak

SUITE DELUX
MUNDO BERRI BERRI, ITZULI BERRI

Geltokietako Lurra La Berranda 101 Bilboan zuzendutako berraketa	Geltokietako Artea Pardalaren berraketa, guztietako berraketa berraketa	Lofara Kaltokietako berraketa berraketa
--	---	---

www.suitdelux.com

*Eskolak txikien
taldeetan –eta ez
nagusienetan– ezarri
dira, euskaraz egiteko
ohitura sortzeko*

*“Gustatuko litzaiguke
eskola Bizkai osora
eta, posible bada,
Euskal Herri
osora zabatzea”*

*Klubek, umeek
eta entrenatzaileek
izugarritzko
atxikimendua adierazi
diote proiektuari*

rrantzitsu bat: izan ere, eurek motibatu behar dituzte umeak euskaraz aritzeko eta azken batean eurek dira boterea dutenak”, esan du Koikilik. Kirol elkarteen lana ere aipatu du Athleticen jokalaria. “Klub bakoitzak konpromisoak hartu ditu eta inplikazio handia izan dute proiektuan”.

Eskola zabaldu

Futbol entrenatzaileen eskola Txorierriko klubetan ezarri dute, baina proiektua ahalik eta gehien hedatu nahi dute antolatzaileek. “Aurten lehendabiziko aldiz egin dugu egitasmoa. Ondo ateraz gero, beste urrats batzuk emateko prest gaude. Gustatuko litzaiguke Bizkai osora eta, posible izango balitz, Euskal Herri osora zabaltzea”, dio Koikilik. Goienetxe ados dago Athleticen jokalariekin. “Guk uste dugu proiektua benetan eraginkorra dela, eta beharizan handia dagoela. Hori guztia ikusita, posible da Bizkai osora zabaltzea eta bertan ere arrakastatsua izatea. Beste kirol batzuetan egiteko aukera eta gogoia ere badago. Baina lehenik eta behin futboleko finkatu behar dugu. Arlo horretan proiektua sendotu eta gero, beste kirol batzuetara zabaltzen saiatuko gara”.

Eskolak zenbait arazori egin beharko die aurre, baina sustatzaileak ziur daude guztiak gaindituko dituztela. Esate baterako, Txorierriko talde –eta herri– guztietan ez dago euskararen ezagutza bera, eta ume guztiak euskaldunak badira ere, erabilera mailan oso alde handiak daude herri batetik bestera. Eta zer gertatuko da



Mikel Aramaio eta Koikili Lertxundi ITZARRIko kideak dira

euskalduna ez den jokalariren bat bada? Koikilik argi dauka. “Entrenatzaileak hori kontuan izan beharko du, noski, baina ezin du aitzakiatzat erabili euskaraz ez egiteko; alderantziz, euskara eta erdara normaltasunez erabili beharko du saioetan eta era horretan integratuko ditu eus-

kaldunak direnak eta euskaldunak ez direnak, guztiak taldeko kideak senti daitezten. Ez da gauza bera izango hitzaldia jokalariek guztien aurrean, edo multzo txiki baten aurrean. Horrelako oztupoak gainditzeko tresnak eman behar zaizkie entrenatzaileei eta horretarako dago gure lana”.

Bodu zu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Iturburuaren gogorak

Iturburuaren gogorak

Iturburuak

Ara zuei agur...




902 54 08 54 www.arlan.net

Eskola dibertigarriak



Lehengo ekainean eskola teorikoak amaitu ziren eta bertan Mikel Aramaio ondarrutarra ibili zen irakasle. "Ikasle kopurua oso handia izan ezenez, eskola hurbilagoak egin ahal izan genituen. Gazteek oso jarrera ona adierazi zuten, eta niretzat oso esperientzia ederra izan zen. Nik teoria apur bat eman nien ikasleei, eta gero euren ekarpena egiteko aukera ere bai. Eta eurek gogoz hartu zuten gonbidapena". Mikelen ustez, ona izan zen entrenatzaile gazteen maila, baina batzuetan "arazok zituzten kontzeptuak euskaraz adierazteko". "Ekimen horri esker, zailtasun horiek gainditzten saiatu ginen". Mikel irakaslea izateaz gain, lehenengo liburuaren egileetako bat ere bada, Koikilirekin batera. "Futbolari buruzko mate-



Jon Casas eta Jon Ortega. Lauro ikastolako entrenatzaileak

riala egon badago edozeinen eskura, baina txukundu, laburbildu eta euskaratu egin behar da. Beraz, lan handia izan dugu, baina pozik gaude liburu txukuna egin dugu-eta”.

Mikel pozik dabil klaseetan, eta ikasleek ere gustura hartu zituzten eskolak. Jon Casas sondikarrak eta Jon Ortega getxoztarrak Loiuako Lauro ikas-tolako talde bana entrenatzen dute eta "gauza asko" ikasi zutela adierazi dute, "bai futbolari dagokionez bai hizkuntzari dagokionez". "Uste baino gusturago ibili ginen. Eskola astunagoak espero genituen, teoria gehiegi agian, baina ez zen horrelakorik izan. Eskolak arinak izan ziren eta irakasleak parte hartzeko aukera eman zigun, eta dibertigarria izan zen". Ikasle horien arabera, ez da arazo handiegirik egongo futboleko gaztelarazko ohitura aldatzeko. "Gure ikastolan behintzat euskaraz egiten dugu eta horri jarraipena emango diogu ikastaroari esker".

Goiri 78 s.l.
 Trattoria ufficiale

Isarco Pol.
 Centro Congressi
 Merano, I

04 433 28 13
 04 433 58 31

**Consulting
Solutions LLC**

Enriching Relationships

Management Consulting
CORPORATE
604 272-7700

Corporate Governance
10000 46 Ave NW
Edmonton, Alberta T6C 2E1

Call: 604 272-7700
Fax: 604 272-7700

Euskararen ahotsa jarraitzen dute zabaltzen

Oporraldi ostean gogotsu etorri zaizkigu Berbalagun egitasmoaren kideak. Horrela, bada, talde batzuk irailean hasi dira elkartzeko, baina ikasturteari urrian emango diote hasiera ofiziala.

TOTOAN Txorierriko euskara elkartearen federazioak orain dela urte bi jarri zuen martxan Berbalagun proiektua, Mankomunitatearekin batera. Hala ere, hori ez da ekimen berria gurean, Larrabetzun eta Derion aurretik ere bazeudelako mintzapraktika taldeak.

Ekimenak euskara ikasten dabilizanak eta euskara badakitenak batzea du helburu; lehenengoek hizkuntza praktikatzeko, eta bigarrenak euren ezagutza konparti dezaten. Hau da, horiek euskara modu naturalean erabil dezaten herriko edozein txokotan. Izan ere, hizkuntza jakin arren, asko dira euskaraz berba egiteko ohiturarik ez duten lagunak. Arrazoiak ere anitzak dira: barregarri geratzeko beldurra, lotsa edo norekin berba egin ez izatea, banaka batzuk aipatzearren.

Berbalagun egitasmoa 17 urtetik gorako pertsonen dago zuzenduta, eta bertan parte hartzeko baldintza bi betetzea baino ez da beharrezkoa: euskaraz berba egin nahi izatea, eta astean ordu-



Izena emateko

-Telefonoa:
635 75 35 95 (Itsasne)

-e-mail:
txorierr.berbalaguna@gmail.com

-Bloga:
www.aikor.com/txokoa/berbalagun

-Non:
Txorierriko Mankomunitatea
Txorierriko euskara elkarteak
Udal euskaltegia
Txepetxa AEK euskaltegia

bete libre edukitzea. Parte-hartzaileak bi edo hiru lagunek osatutako taldeetan banatzen dira, eta talde bakoitzak askatasuna du ordubete hori zertan eman nahi duen erabakitzeko: paseoan ibiltzen, kafe bana hartzen, kartetan egiten...

Joan den urtean 21 mintzapraktika talde sortu ziren Txorierrin: 1 Sondikan, 2 Loian, 11 Derion, 2 Zamudion, 1 Lezaman eta 4 Larrabetzun.

Abantailak baino ez

Taldeok oso dinamika aktiboan ibili ziren murgilduta urritik ekainera bitartean, euskaraz berba egiteko gelditzeaz gainera, proiektuaren arduradunek antolatutako ekitaldiz gozatzeko aukera ere izan baitzuten. Ekitaldi horien artean hauek dira aipagarrienak: ikastaroak, mendi irteerak, bazkariak eta afariak, antzerkia, bisita gidatuak eta txangoak. Ekintzok helburu bikoitza izan dute: alde batetik, Txorierriko berbalagunek elkar ezagutzea; eta bestetik, euskaraz edozer egin daitekeela erakustea. Era berean, ikasturte amaieran berbalagunek Mintza Egunean hartu zuten parte, Arrasaten. Mintza Eguna Euskal Herri osoko berbalagunak batzen dituen jaialdia da.

Egitasmoak badu bere bloga, eta kideek han jarraitu ahal diete proiektuaren inguruan dauden nobedadeei, edo egindako ekitaldietako argazkiak ikusi. Agenda ere argitaratzen da hilero, baillan zein inguruetan euskaraz egiten diren ekintzen berri emateko.

Parte-hartzaileen esanetan, berbalaguna izateak abantailak baino ez dakartza: lagun eta leku berriak ezagutzea, batzuek erdi ahaztuta duten hizkuntza berreskuratzea, euskarari norberaren ekarpena egitea, tarte atseginak pasatzea, euskara ikasten dabilenari laguntzea... Beraz, anima zaitezte!



IRAILA-URRIA

Txartela erabiltzeagatik sariak

10€
5€
20€
50€



ZINEMARAKO BI SARRERA
ZOZKETA

GABAI GASOLINDEGIAN %2ko DESKONTUA



Aurpegi ezagunak ere ikusi ditugu aurkezpen-ekitaldian: Iñaki Goirizelaia

Aste batean 800 kamiseta eta 1.500 zapi saldu ziren.

IMPORTING ITS ELEMENTS

SAATCHI & SAATCHI HAS COMBINED ITS DESIGN CAPABILITY, MARKETING KNOWLEDGE, AND CREATIVITY TO BE THE MOST EFFECTIVE OF THE TWO.

[WWW.SATCHI.COM](http://www.satchi.com) [WWW.SATCHI.COM](http://www.satchi.com)

EHUko errektorea, Iribar futbol-jolari o-hia, Marino Lejarreta eta Iban Mayo txirrindulariak, Aitor Elizegi sukaldaria, bakana batzuk aipatzearren. "Ekimena pres-tatzen hasi ginenean, ez genuen hau i-nondik inora espero. Eraitza itzela izan da; ate guztiak zabaldu dira eta denak la-guntzeko prest azaldu dira", esan dute el-kartetik.




Ekitaldietan batutako dirua umeen eta familien beharrianak betetzen la-guntzeko erabiliko da. Hala ere, elkarteki-deek azaldu duten moduan, diru ekarpen hori garrantzitsua izan arren, ez da gizar-teari helarazi nahi dioten balio bakarra. "Azken bolada honetan eguneroko la-guntza ematen ari gatzazkie familiei: u-meak jolastera eramanez, euren bila es-kolara joanez, etxean lagunduz... Izan ere, familiok bestelako laguntza ere behar dute eta garrantzitsua da gu hori emate-ko prest azaltzea. Hau da jai arrakastatsu honen bitartez zabaldu nahi izan dugun mezua; elkartasuna, hitz batean".



"Ume hauen begietara begiratu nahi dut, eta euren irribarraz kutsatu. Euren etorkizunaren aldeko apus-tua egin nahi dut, bizitza luzea eta duina izan deza-ten..." Elkartasun adierazpena sinatu zuten ekitaldira bertaraturakoeak.



Indaba-janak aurreikuspena gainditu zuen. Frontoian 600 lagundik gora batu ziren.



Ameriketara joan ginan...

Kantarako eta musikarako zaletasun handia dago Euskal Herrian, baita Txorierrin be. Horrela ezagutu ginan gu laurok, Zamudioko eskoletako laugarren solairuan, Bertokon. Ingeniaria, sukaldaria, filologoa, kontabilidade-arduraduna, takoiak, mendiko botak, ule morea, modako puntadun zapatak ... Izaeraz, jazkeraz, ikasketaz, adinez eta bizimoduz desbardinak izan arren, "euskal kultura" deritxan kale-tribu barri horrek bahitu gaitu.

t/a: KZ

Hasieran instrumentuak ikasten eza-gutu genduan alkar, gero ikasitakoagaz jaiak eta giroa sortzen ibili gara, eta pitika-pitika hainbeste ordu batera egonaz lagun egin eta gure bizitzeko modu hone-gaz mugak zabaldu doguz: hasieran Txorierrin, gero Bizkaian, ostean Euskal Herrian... Baina gure instrumentuek euren hotsak eta soinuak oraindino urrunago proiektatu gura izan ebezan, nora eta Estatu Batuetara, Boiseko Jaialdira! Bost urte-rik behin ospatzen dan jai erraldoira!

*"Basque block dagoan
kaleko lau tabernetatik
trikipoteoa egiten
genduan egunero"*


Gure instrumentuen erregu-hotsei kasu egin, eta haien grina hori ase nahian bidaiaz pentsaten hasi ginala, Lagatzu Zamudioko Euskera Alkartearen bidez gonbidapen ukatuezina heldu jakun, Taberna

ibiltariakoak be leku berera joiazan! Zelan esan ezetz? Aukera bikaina zan gure instrumentuek lagun barriak egiteko! Duda barik, baietz esan genduan!

Estatu Batuetara uztailaren 26an joan ginan, baina bidaia prestaten zortzi hile-bete lehenago hasi ginan. Zelako saltsa buruan! "Zer beharko dogu hara joateko? Eta ingelesa? Dolarra zer dabil, gora ala behera? Hotz ala bero egongo da? Ulerako plantxak? Euskal jantziak eroango doguz?" Hainbeste galderagaz gure instrumentuak zoratzeko puntuan egozan.

Bagenkian bidaia luzea izango zala,





Bizkaiko Urbaintzia Eskola
JASOTZEN DUTEN GURUTZETAN
IKASTARROAK
Tel: 94 407 04 45



IKASTURTEAREN AITONA
Irailaren 1etik 30era arte:

- Antzerkiaren Berriraketa
- Antzerkiaren Berriraketa
- Jendakizko Kultura Dinamizazioa
- Irakaskuntzaren Aurreraketa
- Kultura-erakundearen Aurreraketa

ordu piloa egin behar dirala hegazkinez (24!) eta aldaketa guztiakaz maletak galtzeko arriskua oso handia zan. Erabagia hartu genduan, instrumentuak eta euskal jantziak eskuko maletan eroango genduzan, baina zelan edo halan Boiseraino heldu behar ziran!

Bideo-kamara?

Luze egin zan, baina akabuan heldu zan eguna! Goizeko 6etan, urduritasuna nabari zan Loiuko aireportuan. Han gengoan, 80 lagun inguru: Komando Orozko, Komando Unbe, Komando Arratiko zekorrak, Komando Larrabetzu, "La tasca andante", familiartekoak eta gu, Komando Zamudio.

Hegazkinez hegazkin eta aireportuz aireportu hogeta lau ordu ibili ostean eta detektagailu guztietatik oinutsik pasau eta gero, azkenean heldu ginan San Franciscora. "Hemen negua da, ala? Zelako hotza!". Etxe-orratzak, tranbiak, kale luze eta aldapatsuak, arraza guztietako jentea, era guztietako jazkerak... Dana zan diferentea eta handia guretzat. "Pelikuletan agertzen dan bardin-bardina da! Non





SAN FRANCISCO KULTUR ETXEA
Lazaro Salazar, 1 (aldearen aldea)
Telefonoa: 778.493.48 19

Orduak: 18.00, 19.30 eta 21.00

"ZOO"
Hiru irudiak dira
Zoo-aren irudiak
(Zoo-aren irudiak)

18.00 eta 19.30
19.30 eta 21.00





ANTZERKIA

Orduak: 21.00, 22.00 eta 23.00

"ZOO"
Hiru irudiak dira
(Zoo-aren irudiak)

Salazar, L. 1



SANTOEN
Lazaro Salazar
19.00 eta 21.00
19.00 eta 21.00



REAL
Lazaro Salazar
19.00 eta 21.00
19.00 eta 21.00


*"Atzerrira joan eta
bertan inon baino
euskaldunago
sentiduarazo gaitue"*

dago bideo-kamara?". Egun eta erdian danerik egin genduan Kaliforniako uriburuan: turisinoa, shopping (Levi'sak merke-merke!), hotdog, kafe erraldoia (txarra benetan!) eta gauean Euskal etxera bisitatu, bertako euskaldunak ezagutzeko. Gure instrumentuak hasi ziren haien ametsa beteten.

Egun bi baino ez eta bagoaz Boiseran, euskaldun askoren "Mecara", hegazkin txikitxu batean. Basamortu ondoan, bero itzela, 40 gradutik gora egunero! Alogadutako kotxeak hartu, mailetak itxi, eta hasteko, zelan ez, Euskal etxera joan ginan. Hor hasi zan parranden maratonia. Boiseko kalimotxoa eskuan, Basque block dagoan kaleko lau tabernetatik trikipoteoa egiten genduan egunero, kalean gora, kalean behera, gure instrumentuak eta euren lagun barriak alkar hartuta. Euskal kanta joz eta abestuz gaueko ordu txikitara arte ibiltzen ginan hango eta hemendik joandako euskaldunakaz, goizaldeko ordu bietan tragua eskutik kendu eta ostikada eperdian emonda etxera bialtzen ginduezan arte, eta eskerrak! Holan egun guztietako parrandak hasi eta amaitu egin ahal izan genduzan, esfortzu handirik egin barik.

Euskaldunak beti euskaldun

Asteburuan, Boise kanpoaldeko landa batean be egiten zan Jaialdia, Fairgroundsen. Hara joandako euskal artzainak bizi ziren "Carro campo" dotoreetara sartzeko aukerea euki genduan. Ameriketako musikari eta dantzariak ikusi genduzan; hango "taloa", txorizoa eta solomoa pipe-



rrakaz jan; herri kirolak ikusi eta bertan parte hartu; Jaialdiko kamisetak erosi; eta, falta barik, gure instrumentuakaz eta haien lagunakaz, eta egunero guregana etorten ziren guztiakaz, poteo erraldoia egin genduan txosnetatik.

AER LINGUS, UA4963 WASH-MAD, abuztuak 4, 01:35. Gure ametsa bete da. Giro itzela egon da eta sortu dogu Boiseko "Jaialdi 2010"ean. Espedizino osoak euki dau eragina horretan. "Zenbat buru, hainbat aburu" dino esaerak eta hainbes-

teren artean danon nahia egitea ez da erraza izaten. Ondo pasetako, laguntzeko eta parte hartzeko gogoari eta prestutasunari esker, laurogeiok gozau ahal izan dogu bidaiaz, ezelango arazo barik.

Zer izango ete da batzen gaituen hori? Ez dakigu, baina euskaldunak beti euskaldun han eta hemen. Jai egiteko, beti prest, eta antolatzen itzelak gara. Harritzekoa da Ameriketako euskaldunek zelan goraipatzen eta senditan dabezan gure euskal berbak, estrofak eta taupadak. Ze gitxigaz izan gaitkezan euskaldun. Han benetako euskaldun sentidu gara, atzerrira joan eta inon baino euskaldunago sentiduarazo gaitue. Euskal Herrian be gure nortasuna egiten dauan guztia bizi beharko geunke (hizkuntzea, kultura, ohiturak, bizimodua, izaerea...), badakizue, "nula bizi, hala kanta".

Hau hasi baino ez da egin. Honen ostean, gure instrumentuek leku barri gehiago ezagutuko dabez: Bakio, Orozko, Zuberoa... eta batek daki! Hurrengo, "Ipar polara"? Txapela buruan eta ibili munduan. Guk mailetak beti prest!



E. class
Zumutlu
Türkiye'de 14
09-11-2022

Engels Klase
partikularite

"Posible da Txorierriko bidea trenbide zaharrarekin lotzea"

a: Gorka Saratxu, Zesar Martinez

Betiko moduan, oztopoek bultzatu zaituztete bidegorriaren aldeko mugimendua sortzera, ezta?

Gorka: Bai. Herrian jende asko ibiltzen da bizikletaz. Eta haien artean, ia ume guztiak. Baina guraso gehienak herriatik baino ez dira ibiltzen umeekin, bideak ez daudelako egokituta kanpora irteteko. Uste dugu oso eremu mugatua dela, eta batzuetan baita arriskutsua ere.

Goio: Horregatik, jendeak bizikleta autoan sartu eta bidegorria edo bide berdeak dauden inguruetara joaten da, handik lasai ibiltzeko. Eta azkenean, hurbilena da gutxien ezagutzen dena.

Azken urteotan bidegorriak egin dira Bizkaian zehar.

Goio: Foru Aldundiak "Plan ciclable" delakoa jarri du martxan, eta 2003tik 2016ra bitartean hainbat bidegorri egiteko asmoa dute. Eta haietako batzuk ezagutu ditugu: Ezkerraldean, Durangon edo Gernikan, esate baterako. Baina urte batzuk pasatu dira, eta gure inguruan ez dugu ikusten bizikletaz ibiltzeko biderik egiten denik edo daudenak egokitzen direnik.

Zelako onurak ekarriko dizkie bidegorriak Txorierriko txirrindulariei?

Gorka: Lagun askok erabili ahal izango lukete. Gaur egun badira bizikletaz egiteko moduko bideak. Derion, adibidez, badago bidegorri bat Seminarioan hasi eta Airtza auzoraino heltzen dena. Parke Teknologikotik ere nahiko eroso ibil daiteke eta, gainera, bertan kilometro bateko bidegorria dago. Leku aproposak dira horiek paseatzeko.

Goio: Baina bidegorri osoa izanez ge-

BIDEGORRIAREN ALDEKO LAGUNTALDEA

Larrabetzuko lagun batzuk euren zaletasunari bultzada handiagoa eman nahian dabilta. Izan ere, txirrindularitza eta ingurunea maite dituzte eta, autoa erabili barik, bizikletaz Txorierriko inguru zabalez gozatzeko aukera paregabea dagoela sartu zaie buruan. Gorka (Zamudioko txirrindulari elkartekoa) eta Goiorekin izan gara solasean.



ro, askoz erabilgarriagoa izango litzateke. Bideak berak lanera eraman gintzake, eta gazteek instituturaz bizikletaz joateko aukera izango lukete. Eta erromeseri ere errepidea baino goxoagoa den ibilbidea eskaini ahalko litzaike... Turismoa egiteko aukera emango zuen, Bilbora joateko...

Bilboraino joan liteke bide horretatik?

Gorka: Gure ustez, ez litzateke oso zaila izango Txorierriko bidea Lezamako trenbide zaharrarekin lotzea; hau da, tren zaharraren bidea erabiltzea. Egokia eta aproposa da bizikletaz ibiltzeko, eta sano





polita, gainera. Azken batean, zegoen bidea berreskuratzea baino ez da; ibilbide historikoa eguneratzea, proiektu berriak antolatu beharrean. Emaita ona izango litzateke, zalantza barik.

Eta bitartean?

Hainbat gauza egin daitezke, jendea bizikleta hartzera animatzeko: zintarrietan seinaleak ipintzea eta zintzarriak ez dagoen lekuetan errepidea inguratzen duten beste bideak seinaleen bidez markatzea; Larrabetzu eta Lezamako bidean, esaterako. Bide bazterrak ere garbitu eta margotu daitezke, eta horiek ahal den lekuetara zabaltu.

Goio: Dauden bideez baliatzea, oin-

ezkoek eta txirrindulariek inguruak goxo eta trankil ezagutzeko edo berrezagutzeko. Gure eskualdean badago zer ikusi eta nondik ibili, ume, gazte zein heldu izan arren.

Beraz, herritik bizikletaz irtetera animatu nahi duzue jendea.

Goio: Ditugun bideetatik ibiltzera animatzen dugu. Erraza ikusten dugu etxetik irteteara eta bizikletaz kilometro batzuk egitea, bakoitzak bere neurrian. Uste dugu interesgarria, polita eta praktikoa ere badela. Beste leku batzuetan egin dena hemen ere egiteko eskatzen dugu: bideak atontzea eta seinale egokiak ipintzea, benetako bidegorria egin arte.

“Bekatu handia izango litzateke tunela abandonatuta edukitzea”

Gorkaren esanetan, Artxandako tunel zaharra aipatu zuen Aikor! aldizkariako artikuluko batek piztu zion jakin-mina. Tunela ikustera joan eta bide batez trenbide zaharraren ibilbidea aztertzen hasi zen: ibilbide osoa egin, argazkiak atera... Azaldu duenaren arabera, bidea nahiko egoera onean dago eta berreskuratzeko modukoa da. Tunela azpiegitura ederra da, eta bere irteera ere oso ate ikusgarria da. Gainera, Txorierri azkar baten lotzen du Bilborekin. “Bidea, tunela, guztiz abandonatuta edukitzea, bere historia ahaztuta uztea, bekatu handia izango litzateke”.

Jakitun da zailtasunak eta oztopoak daudela azpiegitura egokitzeko. Tunela txukundu eta prestatu egin behar da. Beste alde batetik, ibilbidearen zati bat autoek, txirrindulariek eta oinezkoek batera erabili beharko luketela azaldu du, “baina ez legoke arazorik, seinale egokiak jarritz gero”. Lur jauzien ondorioz, trenbide zaharraren ibilbidetik igarotzen den erreka zati bat galdu egin zen, “beraz, geroago sortu ziren bidezidorrak ere zabaltu eta egokitu beharko lirateke”.

Bidegorri eta trenbide zaharraren gaineko informazio gehiago izateko:

<http://txirrin-txirrin.blogspot.com/p/lezamako-trenbide-zaharra.html>.



t/a: Itxaso Marina

Ursula Tomás UREL Psikologia Social Sondikako kabineteko psikologoak azaldu deuskunez, umeek gura dabena egiten ia hiru hilabete emon ostean, halako baten eguneroko errutinea hartu behar izaten dabe barriro, eta horrek estresa sortzen deutse. Askotan gurasoak eurak dira egonezina sorrarazten deutseena, eskolako materiala azkar baten erosi behar dabelako.

Horri gehitu behar jako bildur izaten dirala zer ekarriko ete deutesen ikasturte barriak. "Ikaskide eta irakasle barriak eukiko ditue, ikasgaiak gatzagoak izango dira... eta ez dakie zehatz-mehatz zeri egin beharko deutesien aurre. Ondorioz, portaera-arazoak eukiko ditue, baita jateko eta lo egiteko orduan be".

Oporraldia zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta gogorragoa izango da itzulerara. Halanda be, sindromeak ez dau izaten eragin bardina ume guztiakan. "Batzuei izugarri gustetan jake eskolea eta ohiturak izatea, eta urtean zehar ikasitakoa oporraldian berrikusteko aprobeitxau dabe. Ganera, ikaskideak ikusteko irrikan dagoz. Beste ume batzuk, barriz, urte osoa emongo leukie oporretan".

Egoera barrira ohitu

Gurasoen jarrera ezinbestekoa da seme-alabei errezago egin dakien eskolara itzultzea. "Nasai egon behar dira euren aurrean, eta esan euren laguntzea eukiko dabela beti. Animau egin behar ditue". Era berean, onuragarria da eskolak hasi baino astebete edo aste bi lehenago jarraibide batzuk kontuan hartzea. Ohera joateko ordua aurreratu egin behar da apurka-apurka, eta goizean be gero eta lehenago izartu behar dira umeak. Eskolako materiala denporaz erostea komenigarria da eta, arropeta edo motxilea erosi behar bada, ha umeari aukeratzen itxea. "Halan ilusino handiagoz joango da eskolara.



Umeek be izaten dabe opor osteko sindromea




Uda luzea igaro ostean, eskolara itzuli beharra izan da. Gutariko askok seme-alabai igarri deutsegu, ziur asko, gogo barik edo estresauta dagozala. Adituek opor osteko sindromea edo haur-normaltasunaren sindromea esaten deutesie horri. Egoera pasakorra izan arren, komenigarria da jarraibide batzuk kontuan hartzea.

Umeak berak aukeratutako gauzak estreinauko ditualako".

Besteak beste, liburuei azala ipintea eta bertan bere izena idaztea be onuragarria da, egoera barrira ohitu daiten. Eta etxerako lanak udan egiteko agindu badeutseez, hareek ondo planifikau behar


dira. "Adibidez, goizean etxerako lanak egin leikiez, eta arrastian libre euki. Ohitura hartuko dabe eta iraila heltzea ez da izango hain traumatikoa eurentzat".

Eskolako lehenengo egunetan, guraso batzuek komeriak pasaten ditue seme-alabak izartuteko. Gauzez kosta egiten jake





Umearen arabera, opor osteko sindromeak astebetetik hilabete batzuetara iraun leike. Luzeago joten badau, komenigarria da eskolan edo profesional bati galdetzea, beste era bateko arazo baten seinalea izan leйтеkeelako.



Hemen reziketa lana da





TXORIERRI
BIOLOGIA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

Ikertzaileak ikertzen ari diren gaiak

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA



IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

Ikertzaileak ikertzen ari diren gaiak

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA



IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

Ikertzaileak ikertzen ari diren gaiak

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA
IKERKETA ZENTROA

[illegible]

Download
Tizen

Maatso Antonio Costa gump
At. 00000000

Copa Gregorio Mendez
At. 00000000

Maatso Costa gump
At. 00000000

Download: 100% - 100% - 100% - 100%
100% - 100% - 100% - 100% - 100% - 100% - 100% - 100%




GARAIOLTZA, S.A.
 PROMOTIOIAK ERAIKUNTZAK

Erabilgarritasunak
 Merkataritza-irabazak
 Garapenak
 Informazioak eta abarrik
 Edukiak handiak
 Gidatutako erakundeak

Tel.: 94 455 50 19

Garapenak, S.A. (C/ Bazar)
 1. eta 2. solairuak



(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa



Gu ggenheim bi

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Eureka, Txori!
–Kontxo Luki! Zer topeu dozu ba?
–Aditz barria aurtengo kurtisorako.
–Zer aditz edo zer aditzondo?
–Euskal aditza:
Gu ggenheim
Zuekenheim

Bera ggenheim
Hareekenheim...
–Genheim Alemaniako uria da, gero, Luki!
–Eta zer? Asasinatu be arabierako hasasijin berbatik dator –“haxiak mozkortuak” esan gura dau, eta euskaraz da asasinatu.
–Dana dala Luki, zer zentaila esan

gura dau aditz horrek?

–Esan gura dau: mundu globalizatuko turistak kalimotxoaren jaioterrira erakartzeko museo-ontzi titaniozkoa.

–Hori **guztiori** esan gura dau? Eta titaniozkoa? Titanic ez zen ito ba?

–Bai! Museo hori itoko balitz be, bilbotarrak naufragio. Gu ggenheimi esker gara ezagun munduan Txori.

–Zuekenheim izango zarie Luki, ni ez.

–Euskaldun guztiok ggenheimdu gaitu museo horrek Txori.

–Ez nau ni ggenheimdu, baina turista asko bai.

–Mundu zabalean da ezaguna, Txori, Guggenheim Bilbao.

–Baita Athletic eta Loiolako Inazio be, eta Donostiako **Kontxia** nahiz Iruñeko zezanak eta Biarritz.

–Edozelan **bere**, zertarako, Luki, Guggenheim bi?

–Zer egingo jako ba! Euskaldunok, zoritxarrez, danetan bi, batasuna baino bitasuna praktikatzen dogu, bat zenbakia ez dakigu, eta holan ezin gara lehenengoak izan ezertan, gehienez be bigarrenak. Zuk Txori bigarrena Urdaibaiggenheim-gaitik dinozu?

–Horixe ze, ni Urdaiezggenheim-en alde nago. Euskaldun asko antiggenheimdu da Sukarrietako proiektuagaz.


–Guk, Txori, gora Guggenheim edo gara edo gera edo giri edo Gehry..., baina Gu ggenheim!

–Hain alde **paretan** bazara, Luki, las-ter dabe ipiniko lukia, azeria, museo aurreko Puppy txakurraren lekuan.



94 452 34 47
www.aikora.com


Experiencia especial GOLF GASTRONOMICO
Reservar: 1 sala privada de 10 personas, menú de 10 platos y un green fee para competir en la cancha.



T. 94 452 34 47
www.aikora.com

45€

IVA incluido



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

**Zer irabazi du
Txorierri harri-zulatzailen
taldeak?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:

Txorierriko hainbat tabernatan

Irabazlea:

Maitane Bilbao

EUSKARAZETAMOL

DERIOKO GUREA ARETOA


URRIAN 21 - 19:00

SARRERAK 1€

Urriaren 1etik 19ra Mankomunitatean, liburutegietan, euskaltegietan.
Ordubete lehenago leihatilatan.

...primeran ari gara, lopera, lipatzen. Ikusiko duzue zer egiteko gai garen gure
hizkuntzarekin "jarrita" gaudenean. Esperimentu zientifiko bat egin
dugu, gainera, mega-ikuskitun honetarako behar dugun super-euskara
lortzeko: Euskaltzaindiako Liburutegian sartuta egon gara hizabete oso
batez, artxibadore baten barruan. Azkenengo egunean adola atera ziguten,
emanezki egunetan autotransfusio bat egiteko. Emaitza ikusgaitia da,
harrigarria.

*Mikel Martiarena
Pablo Ibarra*



Bakoren bazterra**Paki, lorategian***Iñaki Suárez, sumillerra*

Arratsalde ederra zen, urdin-urdin zegoen zerua, eta aro ezin hobea egiten zuen, eguneroko pasiera egin genezan chardonnay mahatsondoek eratutako itsaso hartan. Egutero bezala, eskualdeko baserritarrek egiten zuten nekazaritza jarduerarekin partekatzen genuen geure atseden eta lasaitasun sentipena, eguneroko anabasatik urrun (zehazki, Mersault-en ginen, Côte-d'Or departamenduaren erdi-erdian, Borgoinan) eta bat-batean Paki gelditu eta bota zidan: Iñaki, nola ez dira ardoak gozo egongo? Mahastizainak baino gehiago lorazainak dirudite eta! Orduantxe konturatu nintzen nire bake, oreka eta armonia sentipen hori ez zela ezustean gertatua: orduan ginen eskualde hartan, jendeen arimaren parte zen mahastizaintza, ardoa; mahats pean ereindako lore bakoitzak, landareari kendutako orri bakoitzak, erauzitako belar txar bakoitzak, baita partzela bakoitza ixten zuten harriek ere badute beren zentzua; arrandiarik gabe, baina ehunka lanurteren emaitza den dotorezia batez.

Itzulera, mahastizain etxe bitan gelditu ginen, aukera ematen baitzuten haien ardoak dastatzeko eta, gogoko izanez gero, botila bat edo beste erosteko. Liluragarria iruditzen zait nola interpreta-



tzen duten **"berezkoaren balioa"**, beren herria, beren lurra, beren kultura, beren ardoa; eta haiek ohartzen badira benetan estimatzen duzula, ez diote uko egingo, beren lanaren emaitzari kortxoa kendu eta zurekin partekatzeari. Baina harantzago doaz: beren produktuaren harrotasuna aski ez, eta gomendatzen dizute ez dezazula utz dastatu gabe auzoko batek Montrachet-en egiten duen chardonnay-a edo beste batek Pommard-en egiten duen pinot noir-a.


Apaltasuna eta eskuzabaltasuna, horra hor balio bi batzuetan eskuliburuan berrikusi behar ditugunak haien existentzia egiaztatzeko; topikoak diosku eskualde elitista eta garestia dela; guk, berriz, aukera ederra aurkitu dugu, ardo erabat bikainak dastatzeko. On egin!

Etxeko sukaldaritza**Bizkotxoa sagarragaz***Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak:**

- 3 sagar
- 250 g azukre
- 250 g urun
- Sobre bat legami (5 g)
- Jogurt natural bat
- dl 1 ekilore-orioa
- 3 arrautza
- Beste sagar bat

Prestateko area:

Hiru sagarrak zuritu, xerratan ebagi eta ordubetez izango doguz beratzen koñak eta azukre apur batez. Beste alde batetik, 23 zentimetroko moldea hartuko dogu. Hori gurinez igurtziko dogu eta urunez be egingo dogu. Azukerea eta arrautzak hiru minutuan irabiau doguz. Sagar gordina garbitu, txikitu eta gehituko dogu. Irabiau egingo dogu. Ondoren, jogurta eta orioa gehituko doguz apurka-apurka. Eta azkenik, uruna eta legamia. Orea moldera botako dogu, eta ganetik beratutako sagarrak jarriko doguz, polito-polito. Laba aldeztu aurretik berotuko dogu 180 gradutan. Bizkotxoa labara sartuko dogu eta 30-40 minutuan izango dogu egosten. Orratz bat erabilia begiratuko dogu ea eginda dagoan.



Ercoreca
supermerkatuak

Flik aldurara aldituak



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Gizajendearen ahitzea, P. Sastre
- Nor bere bidean, J. M. Irigoien
- Kontrarioa, L. Garro
- Aulki-jokoa, U. Alberdi
- Ez dago etxean, J. Urain

LITERATURA: HAUR ETA GAZTEAK

- Reckless-harrizko haragia, C. Funke
- Jose Migel Basoko oreina, M. Le Huche
- Beste gu, A. Mendoza

MUSIKA


- Don inorrez, Bide ertzean
- Beti bizi, K. Junkera, X. Amuriza eta Leioa Kantika Korala
- Noa, Esne Beltza
- Arriskua maite, Kupela
- Goizalde surrealista, Surfin kaos



Sudokua

	2		1			3	
		3		4		6	
	8				5		7
4		8			2		9
				7			
	5	7	3			4	2
			5				
6	4			1			2 7
		1			4	8	

8	9	8	8	8	8	8	8	8
7	8	8	8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8	8	8	8



Azokak

Sondika

- > Ardoaren azoka. Urriaren 24an, 10:00etatik 15:00etara, Sollube kalean.

Erakusketak

Sondika

- > Sondika-Goiri elkartearen argazkiak. Urriaren 1etik 15era, erakusketa aretoan.

Derio

- > Perretxikoen argazkiak, Beni González-zen eskutik. Urriaren 28tik azaroaren 14ra, CAN-ean. Untza mendi taldeak antolatua.
- > Perretxikoak. Urriaren 31n, 10:00etatik 14:00etara, Sollube kalean.

Hitzaldiak

Derio

- > Udazkeneko perretxikoak, Plácido Iglesiasen eskutik. Urriaren 28an, 19:30ean, CAN-ean. Untza mendi taldeak antolatua.



Argazkia: Urrusti taldea

Ikastaroak eta tailerrak

Sondika

- > Gabonetako sukaldaritza. Izena ematea: urriaren 18tik 22ra, liburutegian.

Derio

- > Ama izatearen abentura, Garbiñe Etxebarria psikologoaren eskutik. Urriaren 7tik aurrera, 16:15etik 17:45era, ludotekan.

Zamudio

- > Elikapen misioa. Urriaren 23an, 11:30ean, liburutegian. Bost urtetik 12 urtera bitarteko umeentzat.

Larrabetzu

- > Xaboi naturalak. Izena emateko epea: urriaren 18tik 22ra, liburutegian.

Irteerak

Txorierrri

- > Kilometroak, urriaren 4an; eta Nafarroa Oinez, urriaren 17an. Txorierritik autobusez joateko aukera. Izena ematea: udaletxeetan edo Mankomunitatean.

Sondika

- > Altungana-Zeanuri. Urriaren 24an, 09:15ean, ikastetxearen aparkalekuan. Gurasoen elkarrekin antolatua.

Derio

- > Perretxikotan. Urriaren 30ean, 08:00etan, udaletxe aurrean. Untza mendi taldeak antolatua.

Zamudio

- > Errioxa. Urriaren 17an, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Anboto-Sakana. Urriaren 24an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lehiaketak

Txorierrri

- > XIII. Ipuin Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 30era arte, liburutegietan edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan.

Sondika

- > Frontenis. Urriaren 20tik aurrera, Goronda Beko kiroldegian.


Bestelakoak

Txorierrri

- > Euskara ikastaroentzako diru-laguntzak. Eskaerak aurkezteko epea: urriaren 4tik azaroaren 4ra, udaletxeetan eta Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan.

Derio

- > Nagusien Nazioarteko Eguna. Urriaren 1ean, 19:00etan, frontoian. Nagusien etxeak antolatua.
- > Derioko historiaren emanaldia. Urriaren 8an, Gurea Aretoan.
- > Tokiko agenda 21. Urriaren 20an, 19:30ean, Larrabarri baserrian. DerioKOMunikazioak antolatua.
- > Bizikletaren VIII. jaia. Urriaren 31n, 10:00etan, Seminarioan.



**Qure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...malla handiko teknologiarekin.

ITP Taldean atxiegia handia egiten dugu berkebi alorretan hegazkin-motor
magetomaguetan, eta alorre horietan CO₂ gutxiago erabiltzeko teknologia
berriak garatu. Beraz, ingurumenaren eragina gutxitzea eta CO₂ gutxiago erabiltzeko
teknologia berriak garatu. ITP Taldeak, ingurumenaren alorrean, Taldean
Integratua jaxo duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.
Ingurumenaren eraginaren inguruko teknologia berriak garatu eta enpresa
berriak garatu.



AURTENETXE, S.A.

Kontzezionarioa - Banatzailea - Zerbitzu Teknikoa

OREGA



Grillo




HONDA



STIHL



Viking



HUSTLER



Kubota



berrie

Artxvalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66

Sagcan Pol., 34. pab
Lauaxeta Olerkari
48100 Mungia (Bizkaia)
Tel. eta faxa: 94 674 63 62

Autonomía, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18